



## **Auzipetuen adierazpena**

Arantzazuko Ama Birjina agertu omen zenean, Oñati ez zen Gipuzkoa. Konderri txiki independentea zen, hain zuzen ere geografikoki Euskal Herriaren erdi-erdian kokatua, Euskal Herriaren bihotz-bihotzean.

Eta Arantzazuko Ama Birjina hasiera-hasieratik Euskal Herri osoaren Ama bezala ikusi izan da ("de todos los cántabros" eta "de todo lo Vascongado", kronista batek orduan esan zuen bezala).

Iparraldeko nahiz hegoaldeko euskaldun guztien Ama, ez Probintziaren bateko Ama partikularra.

Erromesak Euskal Herri osotik etortzen zirela Arantzazura jadaneko XVI. mendean, idazten du Esteban Garibaik, Filipe II.aren kronistak, eta iparraldetik etortzen zirela, nabarmentzen du, erromes asko eta opari askorekin: Ternuako bale-arrantzaleak eta emazteak.

Erdi Arotik irten eta Aro Moderno guztian Euskal Herri osoaren bilgune eta sinbolo izan da Arantzazu.

XIX. mendean, Euskal Herria karlistadetan txikiturik gelditu denean, eta liberalek santutegia, komentua eta eliza, erre egin dutenean, Arantzazuren balio sinbolikoa are nabariago agertu da. Dena kiskalita lurrean, dorrepunta bakarrik gelditu da zutik. Euskal Foruak erreta, baina Euskal Herriaren bizi-nahia zutik. "Arantzazu! Arantzazu! Zu zera Euskal Herriaren iduri bizia", lantua jo du negarrez Juan Carlos Guerra historialariak.

Eta Salbatore Mitxelena Arantzazuko poetak, poema zoragarri batean, Euskal Herriko historia eta Arantzazuko historia, biak bat egin ditu, Ama-Semeen historia. Bizi balitz *Egunkariaren* historia ere erantsiko lioke.

Karlistaden osteko Euskal Pizkunde kulturalean Arantzazu beti presente egon da. Baina batez ere 36ko Gerra Zibilaren ondoren, basilika berriarekin, euskaldunen Montserrat bezala berregin da Arantzazu, Euskal Herri berri baten sinbolo eta errealitate. Horra Muñoz, Oteitza, Txillida, Basterretxea, Eulate, artean; horra Gandiaga, Salbatore Mitxelena, poesian; Aita Villasante, aspergabe euskara lantzen. Arantzazu euskararen, kulturaren eta artearen zentro bilakatu da Euskal Herriarentzat. Gerra ondoan hemen aurkitu du euskarak lehenengo babes auzitatearen eta Euskaltzaindiaren aurreneko bilarekin; hemen erabaki da euskara batua.

Arantzazuk euskarari, euskalgintzari, euskal kulturari, euskal senari, historian zehar eman dizkionaren zertzeladak dira horiek, eta ez guztiak, gainera.

Horra hor zergatik deitu zaituztegun gaur Arantzazura etortzera, ohi ditugun hirietako biltokietatik aldentuta. Arantzazu da, lekua bera eta bere balio sinbolikoa, historian zehar metatutakoa, gaurko ekitaldiaren erdia.

Beste erdia, zuek jartzen duzue, zuen presentziarekin.

Eguna apaintzeko, hitz apal batzuk jartzen ari gara, gure aldetik, ondo asmatuta edo asmatu gabe, baina borondaterik onenarekin, handia baita zazpi urte luze hauetako ibilbidean zuekin egin dugun zorra.

Laster, hilabete barru, beteko da *Egunkaria* itxi zuteneko zazpigarren urtea. Mila esker, orain arte eman diguzuen laguntza, babes eta elkartasunagatik.

Zuoi zor dizuegu Auzitegian eta handik at lau haizeetara *Egunkariaren* itxiera salatzea eta auzipetuon errugabetasuna aldarrikatzea. Zeuona da hauspoa, gurea ahotsa. Zuek gabe gu ez gara ezer.

Agian ibilbide honen azken txanpan egon gaitzke. Oraindik gutxienez hilabete batzuk iraungo duen txanpan, hori bai. Egunotan epaitzen ari den sumarioari eman behar zaio amaiera, hasteko. Eta gero pieza ekonomikoari. Badakizue: bi pieza ditu *Egunkaria* auziak.

Oraindik ez da bukatu, beraz. Eta orain arte bezala behar dugu zuen laguntza, zuen elkartasuna, zuen babesa, zuen arnasa beroa.

Sumarioaren epaiketaren erdian gaude oraindik. Beste erdia falta da. Astelehenean hasi eta asteazkenera arte iraungo du hurrengo saioak. Egun bereziki gogorak izango dira auzipetuen aulkian gaudenontzat. Ez omen da hor amaituko. Baina ez dakigu noiz izango duen jarraipena, azkenik bukaera emateko.

Orain artekoagatik eskerrak emateko eta oraindik behar zaituztegula esateko deitu zaituztegu gaur Arantzazura. Datorren astean izango ditugun saio erabakigarrietarako indarra hartzeko deitu zaituztegu.

Ez gara bakarrak, ez gara gaurko egunez biltzen garen bakarrak. *Egunkaria* auziari aukera eman zion bultzada politikoko arduradunak ere Donostian bilduko dira gaur, eta gu epaiketara eraman gaituzten borreroak omenduko dituzte.

Denok dakigu datorren astekoa erabakigarria izan daitekeela kasua alde batera edo bestera bideratzeko.

Gurekin behar zaituztegu, absoluzioa lortzeko, eta honekin batera, *Egunkaria* libre! aldarrikatzeko.

Eskerrik asko.

Arantzazun, 2010eko urtarrilaren 23an